

**UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO
DEIALDIA (2023)
PIFG23/36 "ITSAS ETA INGURUMEN ZIENTZIAK"
Akats zuzenketa**

2023ko urriaren 23an, PIFG23/36 "Itsas eta Ingurumen Zientziak" deialdia argitaratu zen. Deialdi hori UPV/EHU_n ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdi orokorrera igortzen zen. Deialdi hori 2022ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen, eta ez aurtengo deialdira.

Horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APL) 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendu egiten da antzemandako akatsa, eta honela geratuko da deialdiaren oinarrietako 1. apartatua:

"Prestatzen ari den ikertzaile bat kontratatzeko deialdi hau UPV/EHU_n ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdi orokorraren oinarrien arabera egin da. Deialdi hori 2023ko ekainaren 5eko Gobernu Kontseiluan onartu zen".

Leioan, 2023ko azaroaren 29an

ATALA IKERKETA DEIALDIAK
Ikerketako Errektoreordetza